

irri-solas



Ederra naiz

Irakasleak bere ikasleei galdegiten die:
-Adibidez, "ederra nintzen" erraten badizuet,
iraganaldian da, ados zarete! Orain "ederra naiz"
erraten badizuet, zer alditan da?

Hor Hodeiek eskua altxatzen du eta erantzuten dio:
-Hori gezurra da!

Xerka dezagun

Aditz laguntzaileak azter ditzagun: "galdegiten die" : Nork, Nori, Nor? Eta Noiz?
"erraten badizuet": Nork, Nori, Nor? Eta Noiz?

Oroin

NOR-NORI-NORK motako aditza duten erranaldietan, NOR, NORI eta NORK deklinabide kasuak dituzten hitzak ageri dira, nahiz batzuetan gorderik egon.

Nik (NORK) irakasle**ari** (NORI) erantzun**a** (NOR-ZER) emanen **diot**.

Hark (NORK) guri (NORI) gezur**rak** (NOR-ZER) erraten di**zkigu**.

Horra NOR-NORI-NORK laguntzailea eskatzen duten aditz zenbait: eman, ekarri, erran, erosi, kendu, eskatu,...

Laguntzailea **iraganaldian** ala **orainaldian** izan daiteke: **diot**, **nion**...

Laguntzailea singularrean ala pluralean izan daiteke, NOR (objektua) izenaren arabera:

...erantzun**a** (bat) eman **diot** ...erantzun**ak** (bat baino gehiago) eman di**zkiot**

NOR-NORI-NORK orainaldia

NOR/zer	NORI	NORK	
	T(DA)	T	niri/nik
	K/N (A/NA)	K/N	hiri/hik
DI (zki)	O	-	hari/hark
	GU	GU	guri/guk
	ZU	ZU	zuri/zuk
	ZUE	ZUE	zuei/zuek
	E	TE	haiei/haiek

1* Taula hori erabiltzen ikas ezazu, adibideari jarraikiz:

a-Nik hari pilota bat eman: **DI** (NOR? Zer? pilota bat) **O** (nori?hari) **T** (nork? nik) **DIOT**
b-...

2*Laguntzaile egokiarekin osa ezazu gaineko taula erabiliz. NOR: pilota bat (singularrean), **Aditza:** eman, orainaldian.

a-Nik hiri ..diat/ dinat

hari.....
zuri.....
zuei.....
haiei.....

b-Hark niri.....

hiri.....
hari.....
guri.....
zuri.....
zuei.....
haiei.....

c- Hik niri.....

hari.....

3*Taula osa ezazu. NOR-NORI-NORK orainaldia, NOR singularrean. (gauza bat) orainaldian.

NORK/NORI	NIRI	HIRI	HARI	GURI	ZURI	ZUEI	HAIEI
NIK	X			X			
HIK		X			X	X	
HARK							
GUK	X			X			
ZUK		X			X	X	
ZUEK		X			X	X	
HAIEK							

4*Erranaldiak osa itzazu pluralean (-zki-) eman ez.

a- Atzo bizkotx bat ekarri zenidan eta orain zazpi bizkotx ekarri.....

b- Nik barazkiei ura botatzen diet eta belar tzarrak kentzen.....

c- Sukaldariak salda prestatu dizue; kuitatxoak ere prestatu

d- Anek Peiori lore bat eman zion atzo; baina gaur bi eman

e- Saltzaileari xingarra eskatu diogu eta bi lukainka ere eskatu

f- Goizean bixkotx bat ekarri didazu eta orain zazpi bixkotx ekarri.....

5*Iraganaldian ezar ezazu.

a-Aitak guri arrega-tarta egiten digu asteburu oroz.

.....

b-Alaiak haurrei ura ekarri die eta jende helduei fruitu-zukuak banatu dizkie.

.....

.....

c-Sagarrak emanen dizkizuet, baina horren truk sagar-tarta eman behar didazue.

.....

.....